

BPSO® PROGRAMA BERRAKTIBATZEA ARABAKO ESIAN

2024ko urtarrilean, **BPSO®-ko unitate egiaztatuen sustatzaile-taldeek** beren unitateetan **jardunbide egokiak ezartzeari ekin zioten berriro.**

Asko dira **aurrerapenak eta lorpenak** proiektua berpiztu zenez geroztik. Horien artean, berrindartze-plana azaltzeko **akreditatutako unitateetara hurbiltzeko saioak** nabarmendu behar dira. Ekintza horren ondorioz, **inplikaturako profesionalak % 2,63tik % 9,29ra areagotu** dira.

Gainera, urteko lehen seihileko honetan, egiaztatutako unitateen **sustatzaileei zuzendutako 6 prestakuntza** egin dira, eta guztira 176 profesional hezi dira. Era berean, Arabako ESIko egoiliarrei, irakasleei eta gainerako profesionali zuzendutako **BPSO® metodologiako prestakuntza** bat egin da, eta 24 profesionalak parte hartu dute.

Zaintzan jardunbide egokiak ezartzeko **lantaldeak berraktibatu** dira, BPSO® Praktika Klinikoko Gidetan oinarrituta: Sarbide Baskularrak, Minaren Balorazioa eta Maneiua eta Haurren Obesitatearen Lehen Mailako Prebentzioa. Talde horietako kideek zaintzan inplementatzeko estrategiak eta ekintza-planak zuzentzen dituzte. Ekintza horietako bat da erakunde osoan **posterra** zabaltzea, **profesionalek bitxiak eta azazkalakatuak erabil ez ditzaten.**

Zeharkako talde berri bat sortu da, gaur egun AUOko laguntza-taldeak (erretena) sarbide baskularrean jardunbide egokiak **zabaltzeko** ekintzak lantzen dituen.

Azpimarratzekoa da, **diziplina anitzeko talde-lanaren** adibide gisa, erizaintzako zuzendaritzaren eta KSU/Kalitatearen arteko lankidetzak, **ebaluazioaren iraunkortasunari** erantzuten ari baitzaizkio. Datuak eskuz ateratzeak zekarren arazoa konpondu du, eta lanean ari da unitateetan **osasun-gertakari nagusiei buruzko datuak zabaltzeko.**


Gainera, proiektuarekin bat egiten duten **erakundeekin aliantzak** eraiki dira. **Barne-itunak** batzordeekin eta **kanpo-itunak** Euskadin jardunbide egokiak ezartzen ari diren ikastetxeekin eta beste **ESI batzuekin.**



Aurrerapen hori posible izan da, beste faktore batzuen artean, proiektuaren, haren egituraren eta antolamenduaren azterketa sakon baten ondorioz.

Hurrengo paragrafoetan adierazi nahi dizuegu **BPSO®-ko koordinazio-taldeak, ikuspegi estrategiko batetik, azterketa hori egin duela**, baita orain arte lortutako **emaitzak ere**.

Azterketa honetarako erabilitako **metodologia BPSO® ezartzeko tresnaren aplikazioa** izan zen, **etengabeko hobekuntzako zikloaren** tresnarekin batera:



“BPSO® ezartzeko tresnaren eta PDCA zikloaren eskema”

Lehenengo urratsa **arazoak identifikatzea, aztertzea eta lehenestea** izan zen. Horretarako, **proiektuaren historikoa** aztertu zen. **Inkesta** bat zabaldu zitzaien **akreditatutako unitateetako profesionali**, pertzepzio positiboak eta hobekuntza-arloak ezagutzeko. Gainera, **erakundearen egituraren orotariko profiletako profesionali elkarrizketak** egin zitzaizkien. Lan horri esker, aurreko proiektu-liderrek **esperientzia-mapari** buruz egindakoarekin batera, landu beharreko **lehentasunezko arazoak identifikatu** ziren. Horien artean, honako hauek daude:

1. Profesionalen *burnout*-a eta bi ospitaleen arteko unitateen migrazioa.
2. BPSO® proiektuaren organigrama iraunkorrik eza.
3. Komunikazio eraginkorrik eza.
4. BPSO® programan inplikaturako profesionalik eza.
5. BPSO® metodologia eta ezagutza klinikoa ez barneratzea.
6. Baliabide falta eta profesional gutxi.
7. BPSO® proiektuaren koordinatzaileen esperientzia- eta eragin-falta.
8. BPSO®-ren pertzepzio negatiboa onura txikiko lan-gehikuntza gisa hartzen baita.
9. Proiektuan parte hartzen duten profesionalak saritzeko sortutako egitura falta.
10. Behin-behinekotasun handia.

Arazoei lehentasuna eman ondoren, hurrengo urratsa **helburuak finkatzea eta SMART matrizearen bidez aztertzea** izan zen, eta ziurtatu zen **espezifikoak, neurgarriak, lorgarriak, garrantzitsuak eta denbora jakin batean aurreikusitakoak** direla. Identifikatutako arazo horiei erantzuteko proposatutako 13 helburuak honako hauek izan ziren:



“Arabako ESlan BPSO® programa suspertzeko helburuak”


Analisiaren helburua **aldaketak sortu** ahal izatea da, **denboran iraun dezaten, hau da, iraunkorra izan daitezen**. Hori dela eta, proiektuaren aurrerabidean nolabait eragina izan zuten edo izan duten barneko eta kanpoko profesional edo erakunde guztiak aztertzea izan zen hurrengo urratsa. Haren **eragina eta babesa, interes komunak eta haien inplikazioa aztertu** ziren. Horrela, **"konpromiso-mapa"** bat ezarri ahal izan zen:

Halaber, ezarpena zaildu ahal izan duten **oztopoak** kontuan hartu ziren, baita aldaketa sortzen lagunduko duten **bideratzaileak** ere.

Urrats horiek guztiak egin ondoren, arazoari irtenbidea emateko **estrategiarik arrakastatsuenak** jorratu ziren. Horretarako, erakundearen hainbat profilek **CFIR/ERIC tresnarekin** lan egin zuten. Tresna horri esker, honako hauek lehenetsi ziren:



Urrats horiei guztien ondorioz, **organigrama jasangarri baterako oinarria sortu** ahal izan da:



“BPSO® programaren organigrama Arabako ESlan”

Estrategiak argi izateak **2024rako suspertzeko ekintza-plan bat** sortzea ahalbidetu du.

Bidea hastea ez da erraza izan, baina **ebidentzian oinarritutako ibilbide-orri** bati esker, urratsak ez dira hain nekezak. **Proiektu honek asistentzia-praktikan zainketetan ebidentziarik onena ezartzeko helburua du**, eta "olatuarekin bat egitea" erabaki duten profesional ugari sarean egindako lanari esker ari da posible egiten.